

FRENEMOS SU AVARICIA ~~ZORROA~~ LEHERTU!



FRENEMOS SU AVARICIA

Últimamente, lo único que nos trasladan este sistema capitalista y los gobiernos que lo sustentan es **incertidumbre e inseguridad**. Su único objetivo es el de generalizar el desánimo y desesperanza entre la ciudadanía. **Nos tratan de convencer de que no hay nada que hacer**, de que estamos en manos de otros y lejos de asumir sus responsabilidades, siempre ponen algún pretexto. La COVID, la guerra de Ucrania, la crisis energética, la inflación... Excusas que utilizan como si todo ello surgiera de la nada, como si fueran situaciones inevitables en las que no tuvieran ninguna responsabilidad.

Por mucho que intenten ocultar la realidad, sabemos que sí hay responsables y sabemos quiénes son. **Son quienes acumulan la riqueza** y quienes lo permiten. Son quienes explotan los recursos naturales del planeta, explotándolos como si fueran infinitos, provocando guerras, migraciones forzadas, hambre y miseria entre quienes menos recursos económicos tienen.

Los mismos que se apoyan y fomentan un sistema heteropatriarcal hegemónico para que, mediante la división sexual de los trabajos, las mujeres sigan ocupándose de los cuidados de manera precaria o "por amor", porque el capitalismo sabe bien que, **sin cuidados la vida no es posible**.

Son la misma gente que no duda en explotarnos, igual que lo hacen con el medio ambiente, tratándonos como un número más en sus cuentas de resultados, sin que tan siquiera les importe, incluso, que **nos juguemos la vida en el trabajo y la perdamos**. Menos aún les preocupa que suframos multitud de trastornos psicológicos y físicos ante su afán de explotarnos más y más para aumentar sus beneficios.

Atacan sistemáticamente a quienes luchan día a día por el reparto de la riqueza y por un mundo mejor para el conjunto de la clase trabajadora, **ensañándose con los servicios públicos** que garantizan una vida digna para todas las personas. Los mismos que anteponen sus intereses de económicos a las necesidades sociales. A esta gente el único gasto público que le interesa es aquel por el que puedan beneficiarse de manera privada. Exigen que paguemos sus guerras y el armamento que venden para matarnos, presionan para privatizarlo todo y llenarse los bolsillos con ello y cuando las cosas no les van tan bien como piensan, no dudan en tirar de los fondos públicos para que respondan por sus decisiones, ya sean financieras o de cualquier otro tipo.

Su insaciable avaricia necesita de nuestra desesperanza, y en este tiempo que nos toca vivir, ESK y STEILAS tenemos claro que no podemos permanecer impasibles. La clase trabajadora tenemos que tener claro que **luchar por un futuro mejor**, como siempre hemos hecho, merece la pena. La avaricia rompe el saco y **es hora ya de pararle los pies a estos depredadores**.

GELDI DEZAGUN HAIEN DIRU-GOSEA

Azkenaldian, sistema kapitalista honek eta berau sostengatzen duten gobernuak **ziurgabetasuna eta segurtasun falta** baino ez diguten helarazten. Helburu bakarra dute, herritarrengan etsipena eta gogogabetasuna zabaltzea. **Sinetsarazi nahi digute ez dagoela zer egiterik**, beste batzuen esku gaudela eta, haien erantzukizunak onartu beharrean, beti jartzen dute aitzakiaren bat. COVIDa, Ukrainako gerra, krisi energetikokoa, inflazioa... Aitzakia horiek guztiak erabiltzen dituzte ezerezetik sortuko balira bezala, inolako erantzukizunik izango ez balute bezala eta saihetsezinak izango balira bezala.

Errealitatea ezkututzen saiatzen diren arren, guk badakigu badaudela arduradunak eta badakigu nortzuk diren. **Aberastasuna metatzen dutenak** eta hori gertatzea ahalbidetzen dutenak dira, eta egoeraren erantzule osoak dira. Planetako baliabide naturalak lapurtzen dituztenak dira, amaigabeak balira bezala ustiatzen dituzte eta baliabide ekonomiko gutxien dutenen artean gerrak, behar-tutako migrazioak, gosea eta miseria eragiten dituzte.

Sistema heteropatriarkal hegemonikoa probestu eta sustatzen duten berberak dira. Lanaren banaketa sexualaren bidez, emakumeak zaintza lanez modu prekarioan eta "maitasunagatik" arduratzen jarraitzea sustatzen dute, kapitalismoak ondo baino hobeto baitaki **zaintzarik gabe bizitza sostengatzea ezinezkoa dela**.

Gu esplotatzeko zalantza izpirik ez duen jende bera da, ingurumenarekin egiten duten bezala, euren emaitzetan zenbaki bat gehiago gara, eta ez zaie axola guk **lanean bizitza jokatzea ezta galtzea ere**. Are gutxiago kezkatzen ditu guk nahasmendu psikologikoak eta fisikoak jasateak gero eta gehiago esplotatzen gaituztelako beren onurak handitu asmoz.

Pertsona guztientzako bizitza duina bermatzen duten **zerbitzu publikoekin anker jokatuz**, sistematikoki eraso egiten diete aberastasunaren banaketa eta langile klase osoarentzako mundu hobeaz lortzeko egunez egun borrokatzen direnei. Beren interes ekonomikoak gizartearen premien gaitetik jartzen dituzte. Jende hori gastu publikoaren alde dago soilik modu pribatuan etekina atera ahal badu. Beren gerrak eta gu hiltzeko saltzen duten armamentua ordain dezagun eskatzen digute, dena pribatizatu eta beren poltsikoak handitzeko presioa egiten dute, eta gauzak ez doazenean nahi luketen bezain ondo, ez dute inolako zalantzarik funts publikoetatik tira egiteko, hauek beren erabakiengatik erantzun dezaten, izan finantzarioak edo beste edozein motatakoak.

Haien zekenkeria aseeginak gure etsipena behar du, eta bizitza egokitu zaigun garai honetan, ESKn eta STEILASen argi daukagu ezin garela geldirik egon. Langileok argi izan behar dugu **etorkizun hobe baten alde borrokatzeak** merezi duela, beti egin dugun bezala, diruzalakeriak bide laburra duela eta **ordua dela predatzaile honi aurre egiteko**.



PREKARITATEAK ITOTZEN GAITU, HAIEN ABERASTASUNAREN KONTURA

Krisi bat bestearen atzetik kateatzen dugu, baina **beti ordaintzen ditugu langileok**. Eta langileok badakigu benetako arazoa sistema kapitalista bera dela, kostatuta dela, bizirautea eta mozkin ekonomikoak lortzea bilatzen duena.

Esan digute inflazioaren gorakada bortitzaren arrazoietakoa bat energiaren prezioa dela. Hala ere, kontrol neurriak gorabehera, **elikagaien prezioek gora eta gora jarraitzen dute**, gutxi batzuen neurrigabeko zikoizkeriaren eraginez.

Gehienok hilabete amaierara iristeko gero eta zailtasun handiagoak ditugun bitartean, **enpresa handien irabaziak % 92,2 igo dira**, eta soldatak % 2,8 baino ez.

Enplegu bat izateak ez du bizitza duina bermatzen, eta **gero eta langile pobre gehiago dago**. Jasaten dugun prekaritatea onartezina da: lan-baldintza lotsagarriak, soldata miserableak, partzialtasuna, behin-behinekotasuna, azpikontratazioa... 2022ko lan-erforma tranpatiak ez du errealitatea arindu eta bereziki bihozgabea da emakumeekin.

Langabeziak behera egin du, baina, partzialtasuna handitu egin da; kontratu mugagabeak areagotu dira, baita probaldia ez gainditzeagatik kaleratzeak ere; aldizkako langile finkoak hazi dira, baina, ez dakigu benetan zenbat pertsona dauden okupatuta... **Enplegua hazi egin da, baina, baita pobrezia ere**.

COVID-19aren ostean kontratazioek gora egin duten arren, **irabaziak langile-gastuak baino hiru aldiz gehiago hazi dira**. 2020ko udaberri hartan esaten genuen bizitakoagatik ikasi behar genuela; baina, batzuek, ez dute apenas edo ezertxo ere ikasi.

Lurra eta bertan bizi garenok suntsitzen gaituen kapitalismo basati eta hiltzailearen aurrean, gure bizitzak, guztionak, erdigunean jartzeko eta **benetan axola zaigunari balioa emateko garaia da**. Oinarritzko eskubideen murrizketekin amaitzeko unea da, publikoa dena guztiaren gainean defendatzeko unea, zaintzarako eskubide unibertuala aldarrikatzeko eta negozio bat edo pribilegio bat izateari uztekoa. **Ezin dugu onartu gutxi batzuk aberasten jarraitzea zaintza-beharrekin merkantilizatzearen,**

pribatizatzearen eta espekulatzearen kontura eta emakumeen lanaren kontura etekin izugarriak lortuta. Lan-esplotazio honek bereziki eragiten die emakume migratzaileei eta arrazializatuiei. Politika arrazistek egoera hauek babesten dituzte dira, interes ekonomikoek eta politikoek mantendutako atzerritartasun-legean oinarrituta. **Erakundeek beste alde batera begiratzeari utzi behar diote eta erregularizazio-mekanismoak sortu.**



Enpresa handien irabaziak % 92,2 igo dira eta soldatak % 2,8 baino ez

Enplegua hazi egin da, baina baita pobrezia ere

Enpresen irabaziak langile-gastuak baino 3 aldiz gehiago hazi dira

MAIATZAK 1 MANIFESTAZIOAK

ORERETA-DONOSTIA

10:00etan martxa Donostiara Oreretako Alamedatik

BILBO 11:30ean Gran Vía 56

IRUÑEA 12:00etan Baratxurien plaza

GASTEIZ 12:30ean Europa Jauregia

ZAINZA SISTEMA PUBLIKO ETA UNIBERTSAL BATEN ALDE

Zaintza-krisia da, zalantzarik gabe, egiteke dagoen gai nagusietako bat. Gure bizitzak eta planeta mugatuak dira, izaki kalteberak eta elkarren mendekoak gara eta **lehenago edo geroago, pertsona guztiok zaindu beharko dugu norbait edo zainduak izan beharko gara.**

Hala ere, gobernuek beste aldera begiratzen dute, eta **eskaintzen duten irtenbide bakarra zaintza pribatizatzea eta salerostea da.** Orain arte krisia ez bada lehertu, neurri handi batean, etxeko langileek jasaten duten esplotazioagatik da, haiek arduratzen baitira zaintza-beharrak asetzear.

Langile-klaseko emakumeak gara zaintza-beharrak prekaritate-egoeran edo dohainik egiten jarraitzen dugunak, lan erreproduktiboez arduratzen garenak eta, era beran, planto egiten dugunak, zaintza-lanak irauli eta sistema kapitalista eta patriarkal hau zalantzan jartzeko eta gainditzeko.

Zaintza-lanen feminizazioarekin eta familiarizazioarekin amaitu behar dugu, lehen mailako gaia izan dadin lortu behar dugu. Zaintza-lanek jendarte osoaren erantzukizuna izan behar dute, ezin dira gutxi batzuen negozio edo pribilegio izan. **Zaintza-sistema publiko eta unibertsala** premiazkoa da, zaintza-lanak eraldatu behar dira dena aldatzeko.

Pertsona guztien bizitza erdigunean jartzeko unea da!

ERABAKIA GUREA DA

ESKn eta STEILASen **badakigu ez dela erraza kapitalaren munstroari aurre egitea** eta harrotutako enpresa-zuzendariei aurre egitea; izan ere, enpresa horiek ikusten dutena da ustez historiako gobernu aurrerakoienak nahi bezala jarduten uzten diela, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua beren esanetara daudela eta dena errazten dietela.

Badakigu ez dela erraza erabaki ausartak hartzea gobernuen eta patronalen mehatxu eta xantaien aurrean. **Baina gure etorkizuna da jokoan dagoena,** gure bizitzak dira haien menpe daudenak, eta langileok gauzei beren izenez deitzen eta erabakiak hartzen hasi behar dugu.

Maiatzaren lehen **langile borroka jarri nahi dugu balioan,** bi-zi-baldintzak hobetzeko borrokatu behar denean grebara joaten diren pertsona horien borroka, administrazio publiko bakoitzean ustelkeria sistematikoa eta kirastua salatzen dutenei, lankideak ordezkatzeko urratsa ematen dutenei eta patronalarekin eta agintari politikoeekin solaskide izateko erantzukizuna hartzen dutenei, edozein eraso matxista, arrazista, homofobo edo transfoboren aurrean salaketa publikoa aktibatzen dutenei.

Azken batean, gaur inoiz baino gehiago, aitortza egin nahi diegu zailtasunak zailtasun **beren lantokietan eta kaleetan edozein bidegabekeria arbuaitzen dutenei.** Bada garaia, gure kideek egiten duten bezala, sistema krudel eta bidegabe horri aurre egiteko, behingoz bizitzak erdigunean jartzeko, gure bizitzek beren onura miserabileek baino askoz gehiago balio dutelako.

Gora Maiatzaren lehena!



**ZORROA
LEHERTU!**